

EGURRAREN MERKATUAREN ANALISIA

Covid-19aren pandemiak eragina izan du egurraren merkatuan. Itxialdi garaian funtsezko jardueratzat jo zuten basogintza eta lanek aurrera jarraitu zuten, baina eragina nabarmena izan da halere. Zelulosa behar-beharrezkoak ditugun hainbat produktu egiteko nahitanahiezkoa da: higieniko eta osasun produktu, enbalaje, energiarako erabiltzen den egurra, jakiak garraiatu eta gordetzeko hainbat eduki-ontzi ere. Eskari handia izan dute produktu hauek eta, ondorioz, zelulosak ere. Baina industri jarduera ia guztiek jasandako jipoiak tamaina handiko egurretan eragin zuzena izan du.

Kontuan izan behar ditugu ere beste faktore batzuk, halanola, zuhaitzaren azaleko kakalardoak Erdi Europan eragindako kalteak; eta baita lehorteak. Europako hainbat tokitan eman den lehorte gogorak milioika metro kubiko egur sarraskitu edo detxematu ditu eta horrek Alemaniako gobernuak neurri bereziak hartzera behartu du: **700 milioi euro** bideratuko ditu Alemaniako basoetan eman diren kalteei aurre egin eta eraikuntzan egurraren erabilera bultzatzeko.

Bitartean, Gipuzkoako baso produktiboa eraldatzen ari da pinuei eragiten dieten banden eraginagatik. 2019ko bukaeran intsinis pinuak Gipuzkoan 28.653 hektareako azalera betetzen zuen (2016an 40.000), eta horietatik, 16.000 daude kinka larrian, gaitzak ondo jota. Administrazio eta erakundeak ez dira hau konpontzeko neurri ekonomiko bereziak hartzen eta gainera muzin egiten diote eraginkortasuna bermatzen duen tratamendu bakarrari. Eta horrek guztiak, zertara garamatza? Zalantzarik gabe espezieen eraldaketara, kasurik onenean, eta abandonura beste hainbatetan.

Azpimaragarria da egur handiek izan duten eskariaren beherakada izugarria. Peia edo enbor txikiko pinudiak eskatzen dituzte erosleek, eta pinudi horietako asko gaixo daudenak dira. Ustiaketa kostuak ere igotzen ari dira. Azalera handietan, egur volumen gutxiago baitago.

Hona hemen, intsinis pinuaren ustiaketatik lortzen diren produktu ezberdinetako gutxi gorabeherako salneurriak (industrian sartzen direnekoak), orientagarriak.

Peia: 40-45 €/tm (7cm baino gehiagoko diametroa)


Enbor txikiak: 50-55 €/tm (18-30 cm-ko diametroa)

Zerrarako egurra: 60-70 €/tm (25 cm-tik gorako diametroa)

Ustiaketa kostuek eta industriarako garraioak eragin handia izan dezakete pinudiaren ezaugarriaren arabera: zuhaitzaren tamaina, azalera, bideak eta azpiegiturak, distantzia eta helmuga industriaren kokalekua... 23,5 €/tm eta 37 €/tm arteko tartean.

Zutikako egurraren prezioa kalkulatzeko, egurra industrian sartzen deneko prezioari, ustiaketa kostua kendu behar zaio eta horri dagokion BEZ-a (% 12).

Ohar garrantzitsua: *Banda marroiaren gaitza dela eta, elkarteak egiten dituen neurketetan atzerapen handiak sortu ziren, baina gaur egun eskatutako tasazioak epe laburrean burutzen ditugu.*



GIPUZKOAKO

BASO ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE PROPIETARIOS
FORESTALES DE GIPUZKOA